



Horma-irudi batekin apaindu dute Salburua auzoa lagun batzuek, Euskaraldian parte hartzera animatzeko asmoz. Argazkia: Jorge Muñoz

SALBURUA AUZOA PREST DAGO EUSKARALDIAREKIN BAT EGITEKO

Aurtengoa ez da urte erraza izan covid-19aren ondorioz, eta hala nabaritu dute bigarren edizioaren antolakuntzan zehar ● Azaroaren 20an hasiko da ekimena, eta abenduaren 4ra arte luzatuko da

✦ Sara Cabrera

GASTEIZ – Euskaraldiak aurrera pausoak ematen jarraitzen duen bitartean – azaroaren 20an hasiko da eta abenduaren 4ra arte luzatuko da aurtengoa – Salburuan ere ekintzak egiten jarraitzen dute, euskararen erabilera sustatzeko bidean. Pasa den edizioan –2018. urtean– egin zuten bezala, aurtengoa ere horma-irudi batekin apaindu dute auzoa. “Aurreko edizioan ere egin genuen murala, baina bi urte eta gero, hura gabe geratu gara, negozio bat zabaldu dutelako toki berean. Hala ere, ez gara oso urrun joan, pareko horman egin baitugu aurtengoa marrazkia”, gogoratu du horren batzordeko

kidea den Nerea Larrazabalek **DIA-RIO DE NOTICIAS DE ÁLAVA** egunkariarekin izandako elkarrizketan.

Bertan, aurtengoa leloa idatzi dute (*Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan*), eta beste esaldi osagarri bat ere gehitu nahi izan diote irudiari: *Pandemiak ez ditza ahulenak kaltetu*. Izan ere, “ez dugu pandemia hau traba bat izaterik nahi hizkuntza ahulenak eraginkortasunez indartzen eta krisiaren eraginez arriskuan dauden euskararen aldeko egitasmoei eusten jarraitzeko”.

Aurtengoa, azken finean, gogoz dabilta Euskaraldirako dena prestatzen. Edizio honi ekiteko, hain zuzen, lehen bilerak urtearen hasieran hasi zituzten auzoan;

“deialdi irekiak egin genituen, eta haietan bildutako kideekin sortu genuen auzoko elkarteak”, adierazi du Nerea Larrazabalek.

Horrez gain, Euskaraldia are eta ikusgarriagoa egite aldera, banderatroen eskaera kolektiboak egiten dabilta auzoko ikastetxekeo familien artean, etxeko leiho eta balkoietan jartzeko. “Orain dela hilabete gutxi arte, ez genuen zarata handia sumatzen Euskaraldia-

Banderatroen eskaera kolektiboak egiten dabilta auzoko ikastetxekeo familien artean, etxeko leiho eta balkoietan jartzeko

ren etorrera zela eta, baina azken egun hauetan, auzoan eta Gasteiz mailan egiten ari den lanketa bikainari esker, bero-bero dabil gaia”, aurreratu du. Auzotarrengana heltzea lortu dute, eta uste zutena baino hedapen zabalagoa izan du Euskaraldiak. Aurtengoa bereziki izandako zailtasunak aintzat hartuta, pozik egoteko moduan daude azken finean egindako ibilbideak eman dituen fruituengatik.

IBILBIDEA Aurtengoa, izan ere, ez da urte erraza izan, eta hala nabaritu dute Euskaraldiaren antolakuntzan zehar. “Martxoarekin batera, pandemia madarikatua heldu zen. Hala ere, oztopoak oztopo, aurrera jarrai-

tu genuen”. Bilera bertuetan biltzen ziren; eta apirila aldera, Euskaraldiaren aurre-beroketarako ekimen bat abiatu zen, *Etxealditik Euskaraldira*. “Eta pantailen atzetik izan bazen ere, TOP birtuala egiteko animoak ere ateratu genituen auzoan, ekimenari bultzadaxoa emateko”, dio.

Udako hilabeteak, atsedenerako eta hausnarketa egiteko aprobetxatu zituzten. Gero, irailaren bukaeran amaitu zuten lanketa entitateekin, ariguna gisa izena emateko azken egunarekin batera. “Eta azken hilabeteetan, norbanakoan jarri dugu arreta. Ahobizi eta Belarriprest gisa izena emateko epea zabaldu denetik, buru-belarri gabiltza lanean”. ●

UNESCO Etxea
www.unescoetxea.org

¿PERTENECES A LA COMUNIDAD EDUCATIVA?
¿ERES AGENTE ARTÍSTICO?

HEZKUNTZA-KOMUNITATEAREN PARTE ZARA?
AGENTE ARTISTIKOA ZARA?

ORGANIZA
ANTOLATZEN DU

UN
UNESCO ETXEA
CENTRO UNESCO DEL PAIS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNESCO ZENTROA

GIZALDIA

PATROCINAN
BABESLEAK

E
GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

COLABORAN
LAGUNTZAILEAK

Diario

UNESCO Etxea te invita a medir el impacto de la iniciativa de educación artística que estás desarrollando a través de la siguiente guía de indicadores. Además, queremos que nos compartas los resultados para aunar fuerzas y visibilizar que la cultura es una valiosa herramienta para la transformación social.

Más información:
Bego Guzmán b.guzman@unescoetxea.org
www.unescoetxea.org

Descarga aquí



UNESCO Etxeak gonbidatzen zaitu, adierazleen gida honen bidez, garatzen ari zaren arte-hezkuntzako ekimenaren inpaktua neurtzera. Gainera, emaitzak gurekin partekatuzera animatzen zaituztegu, indarrak batuz eta kultura gizartearen eraldatzeko tresna baliotsua dela ikusaraziz.

Informazio gehiago:
Bego Guzmán b.guzman@unescoetxea.org
www.unescoetxea.org

Dejargatu hemen

